

Euskararen Erakundea
2016/18. Ebazpena

Leioako Udalaren Euskararen Erakundearen helburuetako bat euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea da, eta horretarako baliabideak dira, alde batetik, euskara eremu jakin batzuetan euskara erabiltzeko proiektu bereziak onartzea, eta bestetik, euskara ikasten eta erabiltzen laguntzeko jarduerak antolatzea

Aurrekoaz gain, jarduteko modu eragingarria delakoan, Leioako bizilagunei diru-laguntzak ematea planteatu da euskara ikasten laguntzeko, eta funtsean, baliabide ekonomiko gutxien dituztenei euskara ikasteko aukera emateko

Honen ildotik onartzen dut atxikitzen den EUSKARA IKASTEN LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO 2016ko DEIALDIAREN araudia, 22.000,00 eurokoa eta 33501/4800200 aurrekontu sailetik, *euskara ikasteko diru-laguntzak* izenekotik, aterako dena

Leioako Euskararen Erakundearen presidentea, Arantxa Díaz de Jungitu Tudankak, horrela agindu eta izenpetu du Leioan, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hamaseian. Eta horretaz guztiaz, nik, Leioako Euskararen Erakundearen idazkaria, fede ematen dut

Arantxa Díaz de Jungitu Tudanka
Euskararen Erakundearen presidentea

Euskararen Erakundea:
Resolución 18/2016

Uno de los objetivos de Leioako Udalaren Euskararen Erakundea es fomentar y normalizar el uso del euskera, y para tal fin tiene como medios la aprobación de proyectos singulares para que el euskera se utilice en determinados ámbitos y, por otro lado, la organización de actividades que favorezcan el estudio y el uso del euskera.

Además de lo anterior, se ha planteado también como una forma de actuación eficaz el otorgamiento de ayudas económicas para acercar el estudio del euskera a los vecinos de Leioa y, fundamentalmente, para poder hacer posible tal estudio a quienes cuentan con menos medios económicos.

A tal efecto apruebo las bases de la CONVOCATORIA DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA FAVORECER EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA que se adjunta con 22.000,00 euros de dotación e imputable a la partida presupuestaria 33501/4800200 denominada *ayudas para estudiar euskera*.

Así lo mandó y firmó la presidenta de Leioako Euskararen Erakundea, Arantxa Díaz de Jungitu Tudanka, en Leioa, a dieciséis de mayo de dos mil dieciséis, de todo lo cual, yo, la secretaria de Leioako Euskararen Erakundea, doy fe.

Bego Gutierrez Anton
Euskararen Erakundearen idazkaria

LEIOAKO UDALA

EUSKARAREN ERAKUNDEA

EUSKARA IKASTEN LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA

Diru-laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz eta Leioako Udalak ematen dituen diru-laguntzak onartzeko Oinarri Arautzaileek xedatutakoaren arabera. Era berean, diru-laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da, betiere laguntza guztien kopurua matrikula sari errealdaren %100 baino handiagoa ez bada.

1. artikulua Xedea

Deialdi honen xedea zera da, Leioako Udaleko autonomiaduna den Euskararen Erakundeak euskara ikasten edo hobetzen ari diren udalerriko bizilagunei eman behar dizkien diru-laguntzak emateko irizpideak ezartzea.

Diru-laguntzak urtean behin emango dira eta horien bidez, ahal dela, Leioan erroldatuek, gazteek, elkarreetako partaideek, Leioan bizi diren familiek, eta oro har, baliabide ekonomiko urriak dituzten bizilagunek izango dute euskara ikasteko aukera.

2. artikulua Eskatzaileek bete beharreko baldintzak eta diru-laguntza kopuruak

1. Leioan erroldatuta egotea diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa hasi baino 6 hilabete lehenago eta berau bukatu arte.
2. Mastitxu Udal Euskaltegian eta Leioako Lamia AEK euskaltegian izena ematea.
3. Leioako Mastitxu Udal Euskaltegitik kanpo edo Leioako Lamia AEK euskaltegitik kanpo egin diren ikastaroak bakarrik diruz lagunduko dira aipatutako euskaltegi bietan behin izena emanda, Mastitxu Udal Euskaltegiak eta Lamia AEK euskaltegiak, biek, matrikula egin ezin dela ziurtatzen badute, plazarik egon ez delako zein ikastaro mota edo ordutegi arazoengatik.
4. Diruz lagundutako ikastaroen honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) HABEk homologatutako ikastaroak izan behar dute.
 - b) Eskatzailea ezin izango da ikastaroan baja izan. Gainera, dena delako ikastaroan emandako orduen % 85era joan beharko du.
 - c) 2017ko udako ikastaroak ikasturtean egindakoaren osagarri bezala hartuko dira eta bakarrik diruz lagunduko dira eskatzaileak 2016ko urritik eta 2017ko ekainaren bitartean laguntza hauetarako baldintzak betetzen dituen ikastarorik egin badu. Ikastaro hauek diru-laguntza jasoko lukete kreditu nahikorik balego 2016ko urria eta 2017ko ekainaren bitartean egindako ikastaroei legokiekeen laguntza ordaindu ondoren.
5. Diru-laguntzaren zenbatekoa honelakoa izango da kolektiboen arabera:
 - a) Oinarrizko diru-laguntza, ordaindutakoaren %25eraino, Leioan erroldatutakoentzat.
 - b) Euskararen Erakundearen Kontseilu Artezkariak urterik urte ezartzen dituen gutxieneko diru-sarreretara heltzen ez direnek ordaindutakoaren %80eraino jasoko dute. 2016-17 ikasturteari dagozkion diru-sarrerak I. ERANSKINean ikus daitezke. Familia unitate bezala ulertuko da etxebizitzan bizi diren guztiek osatutakoa.
 - c) 1993 eta 2000 urte bitartean jaiotakoek, ordaindutakoaren %50eraino jasoko dute.
 - d) Helbide soziala udalerrri honetan duten elkarteen partaideek, elkarreak jarduera bertan egiten badu ordaindutakoaren %50eraino jasoko dute. Eskatzaileak diruz laguntzea

eskatzen duen ikastaroa hasi baino 6 hilabete lehenagotik, gutxienez, izan beharko du elkartekide.

- e) Leioako merkataritza edo ostalaritzako enplegatu edo titularrek ordaindutakoaren %50eraino jasoko dute.
 - f) 12 urtetik beherako haurren gurasoek ordaindutakoaren %50eraino jasoko dute.
6. Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzari dagozkionak beteta izan beharko dituzte eskatzaileek.

3. artikulua Eskabideak aurkeztea.

1. Eskatzaileek Euskara Zerbitzuak eskuragarri duen ereduaren arabera eskabidea behar bezala beteta aurkeztu beharko dute, dokumentazio egokiarekin batera, Leioako Udaleko aipaturako Euskara Zerbitzuan: Kultur Leioa, José Ramón Aketxe plaza 11, 4. solairua (telefonoa: 94.607.25.76)
2. Eskabideak aurkezteko bi epe ezarriko dira: bata arrunta, urritik ekainerako ikastaroetarako, eta bestea apartekoa, udako ikastaroetarako.
 - a) Epe arrunta 2017ko ekainaren 14tik 2017ko uztailaren 5era izango da. (Ordutegia: 9:00-13:30)
 - b) Udako ikastaroetarako epea 2017ko irailaren 25etik urriaren 6ra izango da. (Ordutegia: 9:00-14:00)
3. Eskatzaileek ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:
 - a) Kasu guztietan:
 - Eskabide-inprimakia, behar bezala beteta.
 - Euskaltegiko matrikularen ordainketaren egiaztatzea.
 - Eskatzailea Herri Administrazioako langilea edo funtzionarioa bada, eta aurreko artikuluko 2 puntuko kasuetako batengatik eskatu badu laguntza, zein Administrazioetarako lan egiten duen adierazi beharko du, eta diru-laguntzaren eskabidearen xede den ikastarorako beste laguntza ekonomikorik jaso ez duela adierazten duen egiaztatzea aurkeztu beharko du.
 - Eska dakiokkeen bestelako informazioa aurkeztu beharko dute Leioako kontu-hartzailetza zerbitzuak eskatuta, diru-laguntzen xedearen ikusketa-lanetan diharduenean.
 - Bankuko datuen fitxa behar bezala osaturik.
 - b) Elkartetako kideek:
 - Eskatzailea noiztik den elkartearen kidea egiaztatzen duen ziurtagiria, elkarteak egina.
 - c) 12 urtetik beherako gurasoek:
 - Familia-liburuaren fotokopia.
 - d) Diru-sarrera urriak izateagatik laguntzak eskatzen dituztenek:
 - Familia edo bizikidetzaren unitateko kide guztien 2016ko errenta-aitorpenaren fotokopia.
 - e) 1993 eta 2000 urte bitartean jaiotakoek:
 - Nortasun agiriaren edo pasaportearen kopia.
 - f) Leioako merkataritza edo ostalaritzako enplegatuak edo titularrak:
 - Establezimenduaren legezko ordezkariak emandako ziurtagiria.

4. artikulua Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa, banatzeko lehentasuna eta hurrenkera.

1. Euskararen Erakundeak 2016ko ekitaldiko "Euskara ikasteko diru-laguntzak" izeneko partidatik 22.000 € gordeko ditu diru-laguntza hauetarako.
2. Laguntzaren gehienezko zenbatekoa, kolektiboaren arabera izango da:
 - a) Oinarrizko laguntza, Leioan erroldatutakoentzat, matrikula kostuaren %25eraino.
 - b) Elkartekideen kasuan, ikastaroaren matrikula kostuaren %50eraino.
 - c) 12 urtetik beherako enpresen kasuan, ikastaroaren matrikula kostuaren %50eraino.
 - d) Familia unitateak diru-sarrera urriak izateagatik eskatzen dutenen kasuan ikastaroaren matrikula kostuaren %80eraino.
 - e) Merkataritza edo ostalaritzako enplegatu edo titularren kasuan, ikastaroaren matrikula kostuaren %50eraino.
 - f) 1993 eta 2000 urte bitartean jaiotako enpresen kasuan, ikastaroaren matrikula kostuaren %50eraino.
3. Diruz laguntzeko onartuko den kostua izango da 1,10 €/orduko aurrez aurreko ikastaroetan eta 1,94 €/orduko autoikaskuntzakoetan, edo aldaketarik balego bere kasuan, udal euskaltegian indarrean dagoen tasa.
4. Diru-laguntza honelako hurrenkera banatuko da:
 - a) Lehenengo eta behin matrikularen kostuaren %15 baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean. Ezarritako kopurua helduko ez balitz, hainbanaketara joko litzateke.

Mastitxu Udal euskaltegiko eta Lamia AEK-ko ikasleek, hala nahi badute, diru-laguntza kopuru hori jasotzea eskatu ahalko dute matrikulatuta dauden euskaltegian, bete behar duten baldintza bakarra da Leioan erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino sei hilabete lehenago. Ikasturtea bukatzen denean, erroldari dagozkion betebeharrak zein betebeharrak akademikoak bete ezean, aurrerapena itzuli beharko dute.
 - b) Bigarren, eta dirurik balego, familia unitateak diru-sarrera urriak izateagatik eskatzen dutenen artean banatuko da, matrikula kostuaren %80eraino. Diru-kopurua helduko ez balitz, hainbanaketara joko litzateke.
 - c) Hirugarren, eta dirurik balego, matrikula kostuaren %50eraino kobratu behar dutenen artean banatuko da, hau da, hamabi urtetik beherako enpresak, elkartekideak, merkataritza edo ostalaritzako enplegatuak edo titularrak eta 1993 eta 2000 jaiotako enpresen artean. Diru nahikorik ez balego, hainbanaketara joko da.
 - d) Laugarren, eta dirurik balego, gainerako eskatzaileen artean banatuko da %25eraino. Diru-nahikorik ez balego, hainbanaketara joko litzateke.
 - e) Bosgarren eta azkenik eta dirurik balego, 2017ko udako ikastaroen diru-laguntzak ordainduko dira, a), b), c) eta d) puntuetan jarritako hurrenkera arabera.
5. Barnetegien kasuan, laguntzaren barruan ez dira sartuko ostatuaren gastuak.
6. Diru-laguntza hauek ez dira metagarriak, hala ere, kolektibo ezberdinen partaide gisa eskatu ahal dira eta kopuru handienarena ordainduko da.
7. Laguntza hori beste erakunde batzuek xede berbererako ematen dituztenekin bateragarria izango da, baldin eta diruz lagundutako jardueraren behar baino gehiagoko finantzaketarik ez badago. Horrelakorik egonez gero, jaso beharreko laguntza gutxituko da egokia den zenbatekora arte, emandako laguntzak diruz lagundutako kostuan egiten duen ehunekoaren proportzioan; aldea ez da ordainduko, eta gehiegizkoa itzuli beharko da.

5. artikulua Emateko prozedura.

1. Euskara Zerbitzuak eskabide guztiak aztertuko ditu, HABEri (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) diru-laguntzetarako eskabideen xede diren ikastaroen ikasketa-emaitzak eta bertaratzeari buruzko datuak eskatu eta gero. Diru-sarrera urriak izateagatik laguntzak eskatzen dituztenen kasuan eskumena duen udal sailari eskatuko zaio txostena.
2. Euskararen Erakundearen Presidenteak diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena onetsiko du gehienez 6 hilabeteko epean. Ebazpen hori Udaletxeko, Euskara Zerbitzuko eta Mastitxu Udal Euskaltegiko iragarki-oholean argitaratuko da. Ebazpenean hamar eguneko epea ezarriko da egindako akatsak konpontzeko, eta behar den helegitea jartzeko, halakorik egonez gero.
3. Presidentetzaren ebazpenaren berri emango zaio Euskararen Erakundearen Kontseilu Artezkariari.

6. artikulua Deialdiaren baldintzak ez betetzea.

Laguntzaren onuradunak asmo txarrez jarduten badu, gezurrezko datuak ematen baditu edo Deialdi honetan ezarritako betekizun edo baldintzak hausten baditu, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta horren zenbatekoa itzuli beharko du.

AZKEN XEDAPENA

Diru-laguntzen deialdi honek aurreikusten ez dituen kasuetarako, honako lege eta araudiak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Leioako Udalak ematen dituen Diru-laguntzen Oinarri Arautzaileak onartzen dituen Ordenantza Orokorra.

2016-2017 IKASTURTEA
EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Diru-laguntza jasotzeko familia unitatearen gutxienezko diru-sarrerak	
Familia Unitatearen kide-kopurua	Familia Unitatearen diru-sarrerak - 2016ko Zerga Oinarria
1	16.061,73 €
2	27.417,39 €
3	37.215,20 €
4	44.196,30 €
5	49.398,54 €
6	53.326,76 €
7	57.211,65 €
8	61.079,21 €
9	64.938,09 €
10	68.796,99 €

LEIOAKO UDALA
EUSKARAREN ERAKUNDEA
CONVOCATORIA DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA
FAVORECER EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA

CURSO 2016-2017

Para la concesión de la presente subvención se seguirá el procedimiento de concurrencia competitiva, en base a los parámetros fijados en la presente convocatoria y en base a lo establecido en la Ordenanza General por la que se aprueban las Bases Regulatoras de las subvenciones que se concedan por el Ayuntamiento de Leioa, con las especificidades establecidas en el presente Título. Así mismo, esta subvención será compatible con otras de las mismas o análogas características que las personas beneficiarias puedan solicitar, siempre que la suma de las mismas no supere el 100% del coste real de la matrícula.

Artículo 1 Objeto

Constituye el objeto de la presente convocatoria establecer los criterios para la concesión de las ayudas económicas por parte del Organismo Autónomo Municipal Euskararen Erakundea a los vecinos/as del municipio que estén aprendiendo o perfeccionando el euskera.

Las ayudas económicas se otorgarán anualmente y procurarán favorecer que los miembros de asociaciones de Leioa, las familias asentadas en el municipio y, en general, los vecinos con pocos recursos económicos, puedan acceder al estudio del euskera.

Artículo 2 Requisitos de los solicitantes y cantidades subvencionadas

1. Estar empadronados en Leioa desde al menos 6 meses antes de comenzar el curso por el que se solicita la ayuda y hasta la finalización del mismo.
2. Estar inscritos en Mastitxu Udal Euskaltegia de Leioa y también los inscritos en Lamia AEK de Leioa.
3. Los cursos realizados fuera de Mastitxu Udal Euskaltegia de Leioa o de Lamia AEK de Leioa sólo se subvencionarán si, tras realizar la inscripción pertinente, Mastitxu Udal Euskaltegia y Lamia AEK de Leioa certifican que no se ha podido formalizar la matrícula en ninguno de los dos centros, bien por falta de plaza en el mismo o bien por razón de horario o tipo de curso.
4. En cuanto a los estudios que se cursen para tener derecho al otorgamiento de ayuda económica, estos deberán reunir las siguientes condiciones:
 - a) Ser cursos homologados por HABE.
 - b) El solicitante no puede causar baja en el curso y debe asistir al 85% de las horas impartidas en el curso correspondiente.
 - c) Los cursos de verano de 2017 se considerarán como complementarios y solo serán subvencionables cuando el solicitante haya realizado otro curso que cumpla las condiciones de estas ayudas durante el periodo comprendido entre octubre de 2016 y junio de 2017. Estos cursos sólo recibirán ayuda en caso de que haya crédito disponible tras pagar las ayudas correspondientes los cursos realizados entre de octubre del 2016 y junio de 2017.
5. La cuantía de las ayudas será la siguiente para cada colectivo
 - a) Ayuda básica de hasta 25% del importe pagado para los empadronados en Leioa.
 - b) Los solicitantes que no alcancen los ingresos mínimos establecidos para cada año por el Consejo Rector de Euskararen Erakundea (los correspondientes al curso 2016-17

pueden verse en el ANEXO I) podrán percibir hasta un 80% del importe pagado. Se entenderá por unidad familiar la formada por todas las personas que convivan en el domicilio del solicitante.

- c) Los solicitantes nacidos entre 1993 y 2000 podrán percibir hasta un 50% del importe pagado.
 - d) Los miembros de asociaciones culturales y deportivas de Leioa podrán percibir hasta el 50% del importe pagado. El solicitante deberá pertenecer a la asociación con una antelación mínima de 6 meses al momento del inicio del curso para el que se pide la ayuda económica.
 - e) Los padres y madres de niños menores de 12 años podrán recibir hasta un 50% del importe pagado.
 - f) Los empleados/as o titulares del sector comercial y hostelero de Leioa podrán recibir hasta un 50% del importe pagado.
6. Los solicitantes deberán estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la seguridad social.

Artículo 3 Presentación de solicitudes.

1. Los solicitantes deberán presentar su solicitud debidamente cumplimentada, conforme al modelo que se les proporcionará en el Servicio de Euskera, y la documentación correspondiente en el citado Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Leioa, sito en Kultur Leioa, José Ramón Aketxe plaza 11, 4ª planta (teléfono 94.607.25.76)
2. Se establecerán dos plazos para presentar solicitudes: uno, ordinario, para los cursos de octubre a junio y otro, extraordinario, para los cursos de verano:
 - a) El plazo ordinario será entre los días 14 de junio de 2017 y el 5 de julio de 2017, de 9:00 a 13:30.
 - b) Y el correspondiente a los cursos de verano será entre el 25 de septiembre y el 6 de octubre de 2017, de 9:00 a 14:00.
3. Los solicitantes deberán aportar la siguiente documentación:
 - a) En todos los casos:
 - Impreso de solicitud debidamente cumplimentado
 - Justificante de pago de la matrícula del euskaltegi.
 - En el supuesto de que el solicitante fuera trabajador de la Administración Pública o Funcionario, y haya solicitado la ayuda por alguno de los supuestos del punto 2 del artículo anterior, deberá indicar para qué Administración trabaja y presentar un certificado que indique que no ha percibido ninguna otra ayuda económica por el curso para el cual solicita subvención.
 - Cuanta documentación sea requerida por el Servicio de Intervención del Ayuntamiento de Leioa en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.
 - Ficha de datos bancarios correctamente completada.
 - b) Los miembros de las asociaciones:
 - Certificado de la asociación en el que se acredite desde cuando pertenece a la misma el solicitante.
 - c) Los padres y madres de menores de 12 años:
 - Fotocopia del Libro de Familia.
 - d) Los solicitantes de ayudas por motivos de ingresos insuficientes:

- Fotocopia de la declaración de la renta correspondiente al ejercicio de 2016 de todos los miembros de la unidad familiar o de convivencia.
- e) Los nacidos entre 1993 y 2000:
 - Fotocopia del DNI o pasaporte.
- f) Los empleados/as o titulares del sector comercial y hostelero:
 - Certificado expedido por el representante legal del establecimiento.

Artículo 4 Cuantía de la ayuda económica.

1. Leioako Euskararen Erakundea reservará 22.000 € de la partida “Ayudas para estudiar euskera” correspondientes al ejercicio de 2016.
2. La cuantía máxima de la ayuda dependerá del colectivo a que se pertenezca:
 - a) Ayuda básica para los empadronados en Leioa, hasta el 25% del coste de la matrícula.
 - b) Hasta 50% del coste de la matrícula en el caso de los miembros de asociaciones culturales y deportivas de Leioa.
 - c) Hasta el 50% del coste de la matrícula en el caso de los padres y madres de menores de 12 años.
 - d) Hasta el 80% del coste de la matrícula en el caso de los solicitantes por motivo de ingresos familiares insuficientes.
 - e) hasta el 50% del coste de la matrícula en el caso de los empleados/as o titulares del sector comercial y hostelero de Leioa.
 - f) Hasta el 50% del coste de la matrícula en el caso de los nacidos entre 1993 y 2000.
3. Se establece como coste máximo a subvencionar 1,10 €/hora para cursos presenciales y 1,94 €/hora para autoaprendizaje o si hubiere algún cambio, la tasa en vigor en Mastitxu Udal Euskaltegia.
4. La ayuda se repartirá en el siguiente orden:
 - a) En primer lugar, se procederá a pago del 15% del coste de la matrícula entre todos los solicitantes que cumplan las condiciones establecidas. En caso de que el crédito disponible no resultara suficiente, se procedería al prorrateo del mismo entre los solicitantes.

Los alumnos de Mastitxu Udal Euskaltegia y Lamia AEK de Leioa podrán solicitar el abono de esta cantidad en su euskaltegi al formalizar la matrícula, si así lo desean, y el único requisito es estar empadronado en Leioa desde seis meses antes del comienzo del curso. Al finalizar el curso se realizará la liquidación correspondiente, y en caso de no cumplir con los requisitos académicos y de empadronamiento, se deberá devolver el adelanto en cuestión.

- b) En segundo lugar, y en caso de que haya crédito disponible, se procederá al abono de hasta el 80% del coste de la matrícula a los solicitantes por ingresos familiares insuficientes. En caso de que el crédito disponible no resultara suficiente, se procedería al prorrateo del mismo entre los solicitantes por este motivo.
- c) En tercer lugar, y en caso de que haya crédito disponible, se procederá al abono de hasta el 50% del coste de la matrícula a los padres y madres de menores de 12 años, miembros de asociaciones culturales y deportivas de Leioa, empleados/as o titulares del sector comercial y hostelero y solicitantes nacidos entre 1993 y 2000. En caso de que el crédito disponible no resultara suficiente, se procedería al prorrateo del mismo entre los solicitantes por este motivo.
- d) En cuarto lugar, y en caso de que haya crédito disponible, se procederá al abono de hasta el 25% del coste de la matrícula entre el resto de los solicitantes. En caso de que

el crédito disponible no resultara suficiente, se procedería al prorrateo del mismo entre los solicitantes por este motivo.

- e) En quinto y último lugar, y en caso de que haya crédito disponible, se procederá al abono de las ayudas correspondientes a los cursos de verano de 2016, según el orden marcado en los apartados a), b), c) y d) de este punto.
5. En el caso de los internados no se incluirán en la ayuda los gastos de alojamiento.
6. Estas ayudas no serán acumulables. Aun así, podrán solicitarse las ayudas por más de un concepto, pero solo se abonará la de mayor cuantía.
7. La percepción de esta ayuda será compatible con cualesquiera otras que pudieran ser concedidas por otras entidades para el mismo fin, siempre que no exista sobrefinanciación de la actividad subvencionada. En tal caso, la ayuda a percibir se reducirá hasta la cantidad que proceda en proporción al porcentaje de la ayuda concedida sobre el coste de la actividad subvencionada, no procediendo al pago de la diferencia y, en su caso, devolviéndose el exceso.

Artículo 5 Procedimiento de concesión.

1. El Servicio de Euskera examinará todas las solicitudes una vez haya solicitado a HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) los resultados académicos y de asistencia de los cursos para los que se solicita la ayuda económica. En el caso de los solicitantes de ayuda por ingresos insuficientes, se solicitará informe al departamento municipal competente.
2. El Presidente de Euskararen Erakundea aprobará la resolución que otorgue o deniegue las ayudas económicas, y tal resolución en un plazo máximo de 6 meses se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, así como en el del Servicio de Euskera y en el del Euskaltegi Municipal Mastitxu, todo ello sin perjuicio de realizar la correspondiente notificación personal. En dicha resolución se establecerá un plazo de diez días para subsanar posibles errores o para presentar las posibles reclamaciones.
3. De la resolución de la Presidencia se informará al Consejo Rector de Euskararen Erakundea.

Artículo 6 Incumplimiento de las condiciones.

En el caso de que el beneficiario de la ayuda actuara de mala fe, incurriera en falsedades o no cumpliera cualquiera de los requisitos o condiciones establecidas en esta convocatoria, perderá el derecho a la ayuda y deberá reembolsar el importe de la misma.

DISPOSICIÓN FINAL.

En lo no previsto en esta convocatoria de subvenciones será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como la Ordenanza General por la que se aprueban las Bases Regulatoras de las Subvenciones que se concedan por el Ayuntamiento de Leioa.

CURSO 2016-2017
AYUDAS ECONÓMICAS PAR A ESTUDIAR EUSKERA

Ingresos máximos de la unidad familiar para la percepción de la ayuda económica	
Nº de miembros Unidad Familiar	Ingresos dinerarios de la Unidad Familiar –Base Imponible 2016
1	16.061,73 €
2	27.417,39 €
3	37.215,20 €
4	44.196,30 €
5	49.398,54 €
6	53.326,76 €
7	57.211,65 €
8	61.079,21 €
9	64.938,09 €
10	68.796,99 €